

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

Onespena ematea merkataritza bonuen salmentaren prezio publikoari

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikuluan (APAPEL) xedatutakoa betez, hona hemen hori arautzen duen testua:

1. artikulua. Xedea

Bat etorritoki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 46. artikuluan jasotakoarekin, udal honek tokiko merkataritza sustatzeko bultzatutako kanpainen barruan dauden merkataritza bonuak eskuratzeko prezio publikoa ezartzen da, prezio publikoa arautzen duen testu honen arabera.

2. artikulua. Ordaintzera behartuta daudenak

Hemen araututako prezio publikoa ordaindu beharko dute udal instalazioetan edo horretarako ohiko bideak erabiliz merkataritza bonuak eskatzen dituztenek, deialdi bakoitzean adierazitakoaren arabera.

3. artikulua. Zenbatekoa

Prezio edo tarifaren zenbatekoa, BEZa barne, honako hau da:

KONTZEPTUA	PREZIOA
3 merkataritza bonu	20,00 €

4. artikulua. Kudeaketa arauak

Sarrerak aurrez iragarritako ohiko bideak erabiliz erosi ahalko dira, eta erosten diren unean ordaindu beharko dira.

5. artikulua. Prezio publikoa kobratzea

Prezio publiko horrengatik eskatzen diren tarifak udalaren diruzaintzan ordainduko dira zuzenean, eskuratzeko bide bakoitzari dagozkion bitartekoen bidez.

6. artikulua. Araudi aipamena

Hemen adierazitako prezio publikoa 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuak arautuko du testu arautzaile honetan jasota ez dagoen guztian.

7. artikulua. Indarrean jartzea

Hemen adierazitako prezio publikoa ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean egongo da harik eta aldatu edo indargabetzen den arte.

Prezio publikoa ezarri eta arautzeko erabakiaren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio erabakia eman zuen organoari, argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da,

bi hilabeteko epean, egun beretik zenbatzen hasita, jurisdikzio hori arautzen duen araudiaren arabera, baina bi errekursoak ezin izango dira aldi berean jarri.

Bastida, 2024ko abenduaren 16a

Alkatea

DANIEL GARCÍA RUIZ